

ABERRI EGUNA. «Herri honetako biztanleei hitza berriz eman» dakien nahi duela azalduko du ABk Donibane Garazin antolatuko duen Aberri Egunean. Abertzaleen gehiengoak Lizarra-Garaziko giroa berreskuratu nahi duela uste du.

Lizarra-Garaziko strategiara itzultzea eskatuko du ABk Aberri Egunean

Lizarratik Garazirako ibilaldi bat antolatuko du, eta mezuarekin bat egiten dutenak parte hartzera deituko



Abertzaleen Batasuneko ordezkariak, atzo Aberri Egunaren kariatara eginiko agerraldian.

rrekiko atxikimendua agertu nahi duten guztiei, beren leiho-tik oihaltze berde bat zintzilikatzea proposatu zien ABk. Donibane Garaziko Aberri Eguna «korronte politiko eta sozialen gaitetik» ibiliko dela uste du. Eki-men horien bitartez, «bere en-gaiamenduan tinko dagoen eta aldi berean bide demokratikoak erabili nahi dituen korronte abertzale bat badagoela baieztatu» nahi du ABk, Richard Irazustak azaldu zuenez.

«Prozesua hausteak ekimenak gelditu zituen»

Mertxe Colinak Lizarra-Garaziren garaiko ekimenak eta giroa gogora ekarri zituen. «Ezer ez zen erraza izan. Baina orain nora goaz? Zertan aitzinatzen gara?», galdetu zuen. Richard Irazustaren ustez Lizarra-Garazi prozesuak «abertzale proiektua indartu zuen», harremanak ugaritu zituen eta, «bereziki, estatutuak postura deserosoan ezarri zituen».

«Prozesua hautsita ekimen horien etetea» azpimarratu zuen Irazustak. Batetik, «hobezera» agertu zirenei eta, bertzetik, «armak berriz hartzea erabaki zutenei» leporatu zien egoera hori. Aberri Egunaren kariatara, «herri honetako biztanleei hitza berriz ematea» bilatu nahi du ABk. «Erabakiak haiek gabe hartzea nahi ez duten guztiei zabaldua» zaie Aberri Eguneko eta martxarako gonbita. «Erradikalismo teoriko baten eta kudeaketa instituzional baten erdian egon nahi ez duten guztiei» egin die deia ABk. «Zurrumbil-tik atera nahi duten guztiak» gonbitatu zituzten. «Justizia bi-deen bitartez edota lehergai-luen bidez kazetariak isilarazi nahi» direla eman zuen «zurrumbilo» horren adibide gisa. «Sin-boloak gaintu nahi dituzte-nei» ere proposatu diete Aberri Egunera etortzea.

Lizarra-Garaziren gaia hartuta, ABk ez du «nostalgia» bilatu nahi. «Atzo, Lizarra-Garaziren mezuarekin anitz bildu ziren. Bihar, agian, denak», adierazi zuen Mertxe Colinak.

AB-REN AGIRIA

«Itxaropenaren bidean, goazen berriz Lizarratik Garazirat»

ABk agiria atera du Aberri Egunera deitzeko. Honekin bat egiten duten guztiei proposatzen die antolatzen dituen ekimenetan parte hartzea.

Lizarra Garazi izeneko garaiak energiak askatu eta hainbat bide ireki zituen:

- kalte eta sufrimendu latzak sortzen dituen gatazka armatua gainditzeko,
- nazio eraikuntzan urrats azkarrak egiteko gero eta sektore gehiago inplikatur,
- burujabetzara buruzko prozesu zabal eta demokratikoa abiatzeko.

Su-etena hausteak eta geroztik eraman es-trategiak bide horiek mozteaz gain, ez dute urrats berri edo hobeagorik ekarri, ez eta ere energiak mobilizatu, gure herriak ezagutzen duen arazo politikoaren dimentsio guztietan.

Halaber, gaurko kuadro juridiko politikoaren defentsa hutsak ez du inolako aterabiderik eskaintzen, agortua delako eta bere garaia amaitua delako.

Denbora berean, frantses eta espainol esta-tuek segitzen dute Euskal Herria mesprexta-tzen eta ukatzen. Estatu bakotzak bere estilo eta diskurtso propioarekin, baina eskuz esku, errepresioa gogortu eta elkarrizketaren bidea gaketzen dute.

Euskaldunen aberria ospatzerakoan, ABk abertzale guztiei deia zabaltzen die gure helbu-ru nagusiak lortzeko mota eta erritmo desber-dinetako dinamika sozial zabalak abia ditza-gun:

- gure nazioa egituratu edo eraikitzen jarrai dezagun,
- herri honetako jende guziarekin batera, gure geroa libreki erabiltzeko eskubidea esku-ra dezagun,
- gure nazioaren burujabetza prozesua gero eta jende gehiagorekin abia dezagun,
- gatazka armatua gaintu eta mugimendu zibilari lekua eman diezaiozun,
- borroka molde berriak bultzatuz, hosto be-rr bat ireki dezagun gure historian.

Eneko Bidegain | BAIONA

ABk Euskal Herriko abertzale guztiei zabaldu zien gonbita atzo aurtengo Aberri Egunera-ko. Lizarra-Garaziko giroa ber-riz itzultzea eskatuko dute martxoaren 31ko hitzorduaren kariatara. Horrexegatik hautatu dute Donibane Garazin antola-tzea. Baina Aberri Egunaren ai-tzineko ostegunean, martxa bat abiatuko dute Lizarratik, eta Donibane Garazin bukatuko da Bazkoz, giza kate handi batekin. «Gure indarrak uztartzeko ikur» gisa ikusten dute giza kate hori, Jean-Noel Etxeberri Txetx-en arabera. Horrekin, «gure atxiki-mendua erakutsiko diogu Liza-rra-Garaziren garaiko estrate-giari».

Garai hartara itzultzearen al-deko agiri bat zabaldu du ABk. Horrekin bat egiten duten guz-tiei ekimenetan parte hartzeko deia egin zien. Txetx-en hitzetan «Euskal Herriko abertzaleen gehiengoak bat egiten du testu horrekin». Bitartean, ideia ho-